

Haur literatura

Zorionak, Sator jauna!
Seve Calleja
Itzulpena: Xabier Monasterio
Irudiak: Carmen Aguirrezabal
Ibaizabal, 2014



Bidaia da helmuga

SEVE CALLEJAK hainbat eta hainbat ipuinetan ikusitako egitura errepikakorra erabiliz egindako ipuin simple eta atsegina dugu *Zorionak, Sator jauna!* hau. Eta idazle bizkaitarraren lanetan ohituta gauden bezala, Xabier Monasterioren itzulpenari esker jaso dugu euskarazko bertsio hau.

Sator jaunak Satortxo ilobari deitzen dio telefonoz, Satortxo gazteak gogoan izan dezan osabaren eguna dela. Eta dei horren ondorioz ilobak bidaia bati ekiten dio osabaren etxera. Bidaia horren kontaketa dugu ipuintxo, nola Satortxok ez dion ezer eramaten osabari (ez zaio ezer bururatzen) baina bitartean bidaian zehar aurkitzen dituen lagun guztiak animatzen dituen osabaren jaira, eta nola hauek bai daramatzaten era askotako opariak.

Jolas hori dugu liburuko argumentuaren oinarria, Satortxok Ilegorri katagorriarekin egiten du topo eta bi lagunak bidean abiatzen dira Magu saguarekin aurkitu arte. Saguarekin batera hirurak martxan jartzean Berritsu satitsuaren okindegira doaz postrea egiteko irin bila. Eta ondoren kirikiñoa, kastorea... eta hainbat lagun elkartuko zaizkie, batzuk gonbidatuta, beste batzuk beren burua gonbidatzearen ondorioz: “Jai batera zoaztela diozue? Ba, zerbaite-rako behar banauzue, ni laguntzeko prest nago”, koadrila ederra osatu arte: “«Bat, bi, hiru, lau,...» saguzarra gonbidatuak kontatuz doa ahapeka. «A zer-nolako jendetza!», pentsatu du bere baitan. Tal-

dekideak horretaz konturaturik, nor bere burua aurkezten hasi da”.

Hirugarren pertsona orokojakilea dugu istorio honetako narratzaile, kontakizuna modu kronologikoan azalduz. Liburuko egitura, gainera, simplea dugu; elkarrizketez osaturiko hogeitau kapitulu laburrez egituratuta dugu, irakurketa are errazagoa bilakatuz. Carmen Aguirrezabalen irudi koloretsu ugari ere laguntzen dute argumentuaren haria jarraitzen eta istorioaren nondik norakoa hobeto ulertzen.

Ipuina, irakurleak espero duen bezala, Sator jaunaren etxean eginiko festarekin amaitzen da: “Orain badaude denak eta Sator Jaunaren urtebetetzea ospatzeko gogo bizia dute denek. Eta gero, jaki guztiak irentsitakoan, ibilaldiaren gorabeherak kontatuko dizkiote elkarri. Eta gero dantzan hasiko dira. Eta kantuz eta barrez arituko dira. Gau osoa dute primeran pasatzeko”.

Ipuin simple eta arin irakurtzen dena dugu Callejaren hau; entretenigarria eta animalia ezberdinez osaturiko talde bitxia protagonista duen kontakizuna. Eta, hainbat lanetan ohikoa den bezala, helburua baino interesgarriagoa da bidaia. Sator jaunaren festa helmuga da, ipuina, aldiz, bidaia. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com